2025ZAUN0031

ZERAMIKAKO UDAL TAILERREAN ARTE-IRAKASKUNTZAK ANTOLATZEKO ETA EMATEKO ZERBITZUEN KONTRATAZIOA
CONTRATACIÓN DEL SERVICIOS DE ORGANIZACIÓN Y PRESTACIÓN DE ENSEÑANZAS ARTÍSTICAS EN EL TALLER MUNICIPAL DE CERÁMICA

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	KULTURA, HEZKUTZA, GAZTERIA ETA KIROL ARLOA / AREA DE CULTURA, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2025ZAUN0031

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: V6YJ-3YT1-YQ1T-ZK4Z

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Maria Angeles Mateos Alpuente TÉCNICA DE CULTURA (05/09/2025 12:00 CEST)

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea, Zeramikako Udal Tailerrean Arte-irakaskuntzak plegu honetan jasotako baldintzetan antolatzea eta ematea da.

Tailerreko edukiak hauek izango dira: modelatze-teknikak ikastea, erabili beharreko lehen gaiak ezagutzea, dekorazio-teknikak ezagutzea, erremintak eta egosketa erabiltzea, eta tornuan aritzea.

1.ª OBJETO DEL CONTRATO

El objeto de este contrato es la organización y prestación de Enseñanzas Artísticas en el Taller Municipal de Cerámica en las condiciones recogidas en el presente pliego.

Los contenidos del taller irán desde el aprendizaje de las diferentes técnicas de modelado, hasta el conocimiento de las materias primas a utilizar, conocer las diferentes técnicas de decoración, uso de herramientas y de cocción, así como la práctica en torno.

2. EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA

Zerbitzuaren baitan, erabiltzaile-talde desberdinei zuzendutako zeramika ikastaroak antolatzen dira urtero: haur, gazte eta helduei zuzenduta.

Adjudikaziodunak eginkizun hauek izango ditu:

- Ikastaroak antolatu eta ematea.
- Saio bakoitzean eman beharreko klaseak eta edukiak prestatzea.
- Ikasleen eguneroko asistentzia kontrolatzea eta haien banakako jarraipena egitea. Datu horiek Kultura zerbitzuari entregatu beharko zaizkio.
- Zerbitzu hau emateарekin zerikusia duten kontsulta guztiak atenditzea, 48 orduko epean.
- Zeramika Tailerrarekin komunikatzeko kanalen kudeaketa.
- Labea erabiltzea (piztu eta itzali).
- Zeramika tailerreko labeen mantentze-lanak egin, eta horren funtzionamendurako elementuenak ere bai.

Adjudikazioduna arduratuko da klaseak emateaz, klaseak prestatzeaz eta kontratuaren arduradunarekin koordinatzeko bileretara joateaz. Era berean, plegu honen xede den jarduerarekin zuzenean lotutako beste edozein antolakuntza-lanak egiteaz ere arduratuko da.

Tailerrak posta elektronikoko kontu bat dauka eta herritarren kontsultak artatzeko soilik erabiliko da, zerbitzua emateарekin zerikusia dutenean. Adjudikaziodunak telefono bidezko arreta ere eman beharko du, eta horretarako bere baliabide propioak

2.ª DESCRIPCIÓN DE LOS TRABAJOS A REALIZAR

El servicio contempla la organización anual de cursos de cerámica dirigidos a distintos grupos de usuarios: niñas y niños, jóvenes y adultos.

La adjudicataria llevará a cabo las siguientes funciones:

- Organización e impartición de cursos.
- Preparación de las clases y contenidos a impartir en cada una de las sesiones.
- Realizar el control diario de asistencia del alumnado, así como su seguimiento individualizado. Estos datos deberán entregarse al Servicio de Cultura.
- Atender todas las consultas relacionadas con la prestación del servicio en el plazo máximo de 48 horas.
- Gestión de los canales de comunicación con el Taller de Cerámica.
- Manipulado (encendido y apagado) del horno.
- Efectuar el mantenimiento de los hornos del taller de cerámica, así como de los elementos para su funcionamiento.

La adjudicataria será responsable de la impartición de las clases correspondientes, así como de la preparación de las mismas y asistencia a reuniones de coordinación con la persona Responsable del Contrato. Igualmente se encargará de cualquier otro trabajo de organización directamente relacionado con la actividad objeto del presente pliego.

El taller dispone de una cuenta de correo electrónico que se utilizará exclusivamente para la atención a las consultas de la ciudadanía en relación con la prestación del servicio. La adjudicataria deberá facilitar asimismo atención telefónica, para lo que deberá aportar sus

izan beharko ditu. Bide horretatik emango den arretaren ordutegia, gutxienez, jardueraren ordutegiarekin bat etorriko da, eta ikastaroetako bakoitza amaitu baino ordubete lehenago eta ordubete beranduago ere arreta emango da.

propios medios. El horario de atención por este medio será, al menos, el de los horarios de desarrollo de la actividad, así como una hora antes y una hora después de la finalización de cada uno de los cursos.

Klaseak dauden aste barnean (astelehenetik ostiralera) ikastarorik eskaintzen ez bada, telefono bidezko arreta ordutegi honetan bermatuko da: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

En caso de que algún día de la semana lectiva (de lunes a viernes) no se oferte curso, la atención al público vía telefónica se garantizará en el siguiente horario: de 10 a 13 y de 16 a 19h.

Matrikularen zenbatekoan sartzen dira ikasteko beharrezkoak diren oinarrizko materialak doan ikasleentzat (20 kg buztin eta esmalte zuri eta gardenak) onartutako programan jasotzen den edukiaren arabera. Material horren gastua adjudikaziodunaren bizkar joango da. Jarduera egiteko beharrezkoa den gainerako materiala ikasleen bizkar joango da.

El importe de la matrícula conlleva para el alumnado la disponibilidad gratuita de materiales básicos necesarios para el aprendizaje (20 kg de arcilla y esmaltes blancos y transparentes) según el programa de contenidos aprobado. El gasto de este material correrá a cargo de la adjudicataria. El resto del material necesario para el desarrollo de la actividad correrá a cargo del alumnado.

3. IKASTAROEN ANTOLAKETA

Oro har, enpresa adjudikazioduna arduratuko da ikasleei prestakuntza teoriko-praktikoa eskaintzeaz, urria eta ekaina bitartean klaseak emanez (ohiko ikastaroaren eta espezializazioaren modalitatean) eta uztailean ere bai (udako ikastaroen modalitatean). Irailean ikasturte berria antolatzeko eta matrikulazioa kudeatzeko lanak egingo dira. Hala ere, kontratua geroago formalizatzen bada, enpresa esleipendunak Udalak 2025/2026 ikasturterako aurrez diseinatutako eskaintza errespetatu beharko du (ekainaren 30 arte), edo, bestela, matrikulazioa antolatzeko, kudeatzeko eta eskolak emateko datak egokituko dira.

Prestakuntza astelehenetik ostiralera emango da, honela banatuta (ikasleen demandaren arabera):

Astelehenetik ostegunera: 10:30etik 12:30era eta 15:00etatik 19:00etara.

Ostiral arratsalde eta larunbatez: espezializazio-ikastaroak eta/edo iraupen laburrekoak.

Adjudikaziodunak ikastaro bakoitzaren egutegia osatuko du eskola-egunekin eta jaiegunekin, eta Kultura zerbitzuaren oniritzia izango du. Egutegi hori inskripzio garaian argitaratuko da. Adjudikaziodunak edukien programa bat entregatuko du eta baloratu egin beharko da, baldintza ekonomiko-administratiboen pleguak ezartzen duen bezala. Programa horrek, zeramika-tekniken irakaskuntzan aniztasuna bermatuko du. Ikastaroetan irteera kulturalak eta/edo prestakuntzari buruzko jarduera osagarriak sartu ahal izango dira, betiere helburu didaktikoekin eta prestakuntza-programaren edukiekin lotuta. Jarduera horiek eskola-programan sartu beharko dira.

Irakaskuntzak, ondorengo modalitateak kontuan hartuz antolatuko dira:

4. Ohiko ikastaroa.
5. Udako ikastaroa
6. Espezializazio-ikastaroak eta/edo iraupen laburrekoak.

IKASTAROEN EZAUGARRIAK:

a. OHIKO IKASTAROA

Klaseak urritik ekainera emango dira. Dagokion eskola-

3.ª ORGANIZACIÓN DE CURSOS

En general, la empresa adjudicataria se encargará de ofrecer formación teórico-práctica al alumnado mediante la impartición de clases entre los meses de octubre y junio (modalidad de curso ordinario y de especialización) y el mes de julio (modalidad de cursos de verano). El mes de septiembre los trabajos se orientarán a la organización del nuevo curso y la gestión de la matriculación. No obstante, en caso de que la formalización del contrato sea posterior, la empresa adjudicataria deberá respetar la oferta previamente diseñada por el Ayuntamiento para el curso 2025/2026 (hasta el 30 de junio) o, en su defecto, se adaptarán las fechas para la organización, gestión de la matriculación e impartición de las clases.

La formación se prestará de lunes a viernes con la siguiente distribución (en función de la demanda del alumnado):

De lunes a jueves: de 10:30 a 12:30 y de 15 a 19h.

Viernes tarde y sábados: cursos de especialización y/o duración reducida.

La adjudicataria realizará un calendario de cada curso con los días lectivos y festivos, que contará con el visto bueno del Servicio de Cultura, el cual se publicará en el período de inscripciones. El/la adjudicatario/a entregará un programa de contenidos que será objeto de valoración tal y como establece el pliego de condiciones económico administrativas. Dicho programa garantizará la diversidad en la enseñanza de técnicas de cerámica. Los cursos podrán incluir salidas culturales y/o actividades complementarias a la formación siempre con fines didácticos y vinculadas a los contenidos del programa formativo. Estas actividades deberán incluirse en el programa lectivo.

La prestación de las enseñanzas se organizará atendiendo a las siguientes modalidades:

a. Curso ordinario
b. Curso de verano
c. Cursos de especialización y/o duración reducida

CARACTERÍSTICAS DE LOS CURSOS:

a. CURSO ORDINARIO

egutegia hartuko da erreferentzia gisa. Klaseak urriko lehen astean hasiko dira eta ez dira ekaineko lehen astea baino lehen amaituko. Edozein kasutan, hasteko data zehatzak urtero hitzartuko dira kontratuaren arduradunarekin.

Ikastaroa 12 urtetik aurrerako ikasleei zuzenduko zaizkie eta ikasleen adinaren arabera bereizitako eskaintza bermatu beharko da (gazteak eta/edo helduak).

Ikasleek astean gutxienez 4 orduko ikastaroa jasoko dute ikasturtean zehar, eta bi edo lau ordutako saiotan eman ahal izango dira, goizez eta arratsaldez, ikasleen demandaren arabera. Haurrentzako ikastaroen kasuan, klaseak <ordu eta erdikoak izango dira eta arratsaldez emango dira.

b. UDAKO IKASTAROA

Uztailean emango da eta 5 urtetik 16ra bitartekoei zuzenduta egongo da. Klaseak egunero emango dira, astelehenetik ostegunera, eta goizez eta arratsaldez eskaini ahal izango dira, ikasleen demanda kontuan hartuz, egunean 2 ordu. Ikastaroak gutxienez 30 eskola-ordu izango ditu.

c. ESPEZIALIZAZIO-IKASTAROAK ETA/EDO IRAUPEN LABURREKOAK

16 urtetik gorako gazteei eta helduei zuzenduta daude. Ikasturtean zehar, espezializazio-ikastaroen zortzi ordu gutxienez eta 16 ordu gehienez eskainiko dira. Ikastaro horiek formatu desberdinetan antolatu ahal izango dira, *masterclass*, mintegi, familientzako tailerrak, *workshop* eta abar barne. Talde hauek osatzeko gutxienez bost (5) ikasle beharko dira eta gehienez hamalau (14). Formatu honen eskaintza baloratu egingo da baldintza ekonomiko-administratiboen pleguan ezartzen dena kontuan hartuz.

Prestakuntza hauen helburua ohiko ikastaroetan partzen hartzen ez duten erabiltzaileengana iristea denez, ohiko programaziotik kanpo beste ordutegi batzuetan antolatu beharko dira, adibidez, ostiral arratsaldetan edo larunbat goizetan eta/edo arratsaldetan.

AMAIERAKO MEMORIA

Las clases se impartirán de octubre a junio. Se adoptará como referencia lectiva el calendario escolar correspondiente. Las clases darán comienzo dentro de la primera semana de octubre y terminarán no antes de la primera semana de junio. En cualquier caso, las fechas concretas de inicio se acordarán anualmente con la persona responsable del contrato.

El curso se dirigirá a alumnos/as a partir de 12 años y se tendrá que garantizar una oferta diferenciada de acuerdo a la edad de los/as alumnos/as (jóvenes y/o adultos).

El alumnado recibirá un mínimo de 4 horas semanales de clase a lo largo del período lectivo, que podrán impartirse en sesiones de dos o cuatro horas, en horarios de mañana y tarde, en función de la demanda de los/as alumnos/as. En el caso los cursos infantiles, la duración de la formación será de una hora y media y se impartirá en horario de tarde.

b. CURSO DE VERANO

Se impartirá durante el mes de julio y estará dirigido a personas entre 5 y 16 años. Las clases serán diarias, de lunes a jueves, y se podrán ofertar en horario de mañana y tarde, atendiendo a la demanda del alumnado, con una duración de 2 horas/día. El curso constará con un mínimo de 30 horas lectivas.

c. CURSOS DE ESPECIALIZACIÓN Y/O DURACIÓN REDUCIDA

Dirigidos a jóvenes a partir de 16 años y adultos. A lo largo del curso se ofrecerán un mínimo de ocho horas y un máximo de 16 horas de cursos de especialización. Estos cursos podrán articularse en diversos formatos, incluidos *masterclass*, seminarios, talleres familiares, *workshops*… El mínimo de alumnos para conformar estos grupos será de cinco (5) y el máximo de catorce (14). La oferta de este formato será objeto de valoración de acuerdo con lo establecido en el pliego de condiciones económico administrativas.

Dado que el objetivo de estas formaciones es llegar a públicos que habitualmente no asisten al curso ordinario, deberán organizarse en horarios diferentes a la programación ordinaria, a saber, viernes tarde o sábados mañana y/o tarde.

MEMORIA FINAL

Ikastaroa edo jarduera amaitzen denean, adjudikaziodunak euskaraz eta gaztelaniaz jardueraren nondik norakoak azalduz eta baloratuz memoria bat aurkeztuko du, programaren garapenari egin zaion jarraipenari buruzko informazioa jasoz. Memoria horrek, gutxienez, honako atal hauek izan beharko ditu:

d. -Jardueraren helburu akademikoak eta pedagogikoak.
e. Espezialitate bakoitzean emandako ikasgaiak.
f. Helburuak bete izanari buruzko ebaluaketa.
g. Izandako gorabeherak eta haiek konponketa.
h. Hobekuntza proposamenak.
i. Dokumentazio grafikoa.
j. Adierazleak: Parte hartzaile kopurua, sexuaren eta jardueraren arabera banatuta.
k. Egiazki aurrera eramandako jarduerak (masterclass, …), hala nola egin ezin izan direnak.
l. Zerbitzuaren balorazioa eta ikastaroaren garapenari buruzko balantze globala.

Finalizado el curso o actividad, la adjudicataria presentará en euskera y castellano memoria explicativa y valorativa de actividad que recoja información relativa al seguimiento del desarrollo del programa. Dicha memoria recogerá, al menos, los siguientes apartados:

-Los objetivos académicos y pedagógicos de la actividad.
-Las materias impartidas por especialidad.
-La evaluación del cumplimiento de objetivos.
-Incidencias acaecidas y la resolución de las mismas.
-Propuesta de mejoras.
-Documentación gráfica.
-Indicadores: número de participantes desglosados por sexo y actividad.
-Actividades realizadas efectivamente (masterclass…), así como las que no han podido realizarse.
-Valoración del servicio y balance global del desarrollo del curso.

IKASLEEN BANAKETA

Irungo Udaletik adjudikaziodunari emango zaizkio aurreikusitako baliabideen bitartez ikasleek eginiko inskripzioak, plegu hauetan ezarritakoa kontuan hartuz.

Adjudikazioduna arduratuko da ikasleak taldetan banatzeaz, aukeratu dituzten eskola-orduen arabera, eta bere kasuan, ezagutza-mailen arabera.

Ohiko ikastaroaren kasuan, txanda bakoitzeko gehienezko ikasle kopurua hamalaukoa (14) izango da eta taldea osatzeko gutxienez bost (5) beharko dira, guztira gehienez hirurogei (60) matrikula osatu arte. Matrikula kopuru hori alda daiteke eta urtero aurreikusitako aurrekontuaren arabera baldintzatuta egongo da.

Espezializazio-ikastaroetan txanda bakoitzeko ikasle kopurua gehienez hamalaukoa (14) izango da eta taldea osatzeko gutxienez bost (5) beharko dira.

Udako ikastaroetan txanda bakoitzeko ikasle kopurua gehienez hamarrekoa (10) izango da eta taldea osatzeko gutxienez bost (5) beharko dira.

DISTRIBUCIÓN DEL ALUMNADO

Desde el Ayuntamiento de Irun se facilitarán a el/la adjudicatario/a las inscripciones realizadas por el alumnado a través de los medios previstos conforme a lo establecido en los presentes pliegos.

El/la adjudicatario/a se encargará de la redistribución de los/as alumnos/as por grupos en función de los días de clase elegidos, y, en su caso, según niveles de conocimiento.

En el caso del curso ordinario, el número máximo de alumnos/as por turno será de catorce (14) y el mínimo para su conformación de cinco (5), hasta totalizar un máximo total de sesenta (60) matrículas. Este número de matrículas podrá variar y quedará condicionado al presupuesto anual consignado.

En los cursos de especialización, el número máximo de alumnos/as por turno será de 14 y el mínimo para su conformación de 5.

En el curso de verano, el número máximo de alumnos/as será de diez (10) y el mínimo para su conformación de cinco (5).

4. LANGILEAK / GIZA BALIABIDEAK

Ikasleen prestakuntza teoriko-praktikoak gutxienez irakasle bat bermatu beharko du eta berorrek titulazio eta formazio egokiak izan beharko ditu tailerreko ikasgaiak emateko.

Irakasle bakoitzak, gutxienez, ondorengo baldintzetako bat beteko du:

m. Buztingintzako erdi-mailako teknikaria, zeramika-dekorazioko erdi-mailako teknikaria, zeramika artistikoko goi-mailako teknikaria, Arte Ederretako gradua edo antzeko prestakuntza.

n. Irakatsi beharreko gaiaren inguruan gutxienez hiru urteko ezagutzak dituela egiaztatzen duen titulazio akademikoa edo profesionala (eskola-tailerrak, erregimen bereziko ikasketak, …).

o. Klaseak ematen esperientzia (gutxienez hiru urte alor honetan ikastaroak edo tailerrak ematen).

Era berean, irakasleek Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa egiaztatu beharko dute, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 legea betez.

Adjudikaziodunak bermatu beharko du zerbitzuak benetan eta jarraian ematen direla, eta bere kasuan, goian adierazitako prestakuntza duen ordezko langile bat kontratatzera behartuta egongo da. Kontratazio horren berri eman beharko zaio kontratuaren arduradunari eta haren oniritzia jaso, eta gehienez bi egun balioduneko epean proposatu beharko da ikasleei ahalik eta kalterik txikiena eragitearren.

4.ª PERSONAL / MEDIOS HUMANOS

La formación teórico-práctica del alumnado se deberá garantizar con un número mínimo de un profesor/a, que habrá de contar con la titulación y formación adecuadas para la impartición de las materias del taller.

Cada profesor/a contará, al menos, con uno de los siguientes requisitos:

- Técnico medio en alfarería, técnico medio en decoración cerámica, técnico superior en cerámica artística, Grado en Bellas Artes o formación similar.
- Titulación académica o profesional que acredite conocimientos en la materia a impartir que no sea inferior a tres años (escuelas taller, enseñanzas de régimen especial...)
- Experiencia impartiendo clases (al menos tres años impartiendo cursos o talleres sobre la materia).

Asimismo, el profesorado deberá acreditar la certificación negativa del Registro Central de Delincuentes Sexuales, en cumplimiento de la Ley 26/2015, de 28 de julio, de modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia.

La adjudicataria deberá garantizar la prestación efectiva y continuada de los servicios, obligándose a, en su caso, contratar a personal sustituto que disponga de la formación mínima arriba indicada. Dicha contratación deberá ponerse en conocimiento de la persona Responsable del Contrato y contar con su visto bueno y habrá de proponerse en el plazo máximo de dos días hábiles a efectos de evitar perjuicios al alumnado.

5. ENPRESAREN BETEBEHARRAK

- Ikasleei prestakuntza teoriko-praktikoa ematea, klaseak emanez.
- Jarduerari buruzko azalpenak eta balorazioa jasoko duen memoria bat entregatzea.
- Kudeaketa zuzen eta egokirako beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak adskribitzea.
- Zerbitzua emateko beharrezkoak diren datu pertsonalen tratamendua Irungo Udalaren kontura egingo du, tratamenduaren arduraduna den aldetik.

5.ª OBLIGACIONES DE LA EMPRESA

- Ofrecer formación teórico-práctica al alumnado mediante la impartición de clases.
- Entrega de una memoria explicativa y valorativa de la actividad.
- Adscribir los medios humanos y materiales necesarios para una correcta y adecuada prestación del servicio.
- Realizar por cuenta del Ayuntamiento de Irun el tratamiento de los datos personales necesarios para la prestación del servicio, en calidad de encargado de tratamiento.

- Lokalaren ohiko garbiketa eta garbiketarako hornidurak.
- Zeramika lantegiko labeak eta haien funtzionamendurako beharrezkoak diren elementuak mantentzea. Esleipendunak ordainduko ditu mantentze horren gastuak, eta baita erregai-kontsumoko gastuak (gasolioa eta propanoa), garbiketa-gastuak eta jarduera artistikoa garatzeko beharrezko kontsumigarrienak ere.
- Adjudikaziodunak Lan Arriskuen Prebentziorako bere Plana egiaztatu beharko du Udalean, eta lanpostu bakoitzari atxikitako segurtasun-arauak ezagutu, jarraitu eta, bere kasuan, lanpostu bakoitzak dituen segurtasun-arau propioen inguruan langileak prestatu beharko ditu, hura betetzearen ardura izango baitu, eta hala badagokio, Udalak bere instalazioetarako ezartzen duen Lan Arriskuen Prebentziorako Planean ezartzen diren jarraibideak kontuan hartuta.
- Kontratua amaitzen denean, giltzak Kultura zerbitzuari entregatuko dizkio.
- Kontratuaren hasiera eta amaieran, tailerrean dagoen materialari buruzko inbentarioa egingo du eta Kultura zerbitzuari aurkeztuko dio.

- Limpieza ordinaria del local y suministros de limpieza.
- Efectuar el mantenimiento de los hornos del taller de cerámica, así como de los elementos para su funcionamiento. La empresa adjudicataria correrá con los gastos de dicho mantenimiento, así como con los gastos de los consumos de combustible (gasóleo y propano), los gastos de limpieza y de los consumibles necesarios para el desarrollo de la actividad artística.
- La adjudicataria deberá acreditar su Plan de Prevención de Riesgos laborales ante el Ayuntamiento, así como conocer, seguir, y en su caso formar al personal respecto de las normas de seguridad inherente a cada puesto de trabajo, de la que será responsable de su cumplimiento, atendiendo en su caso a las indicaciones que puedan establecerse por el Plan de Prevención de Riesgos Laborales que establezca el Ayuntamiento respecto de sus instalaciones.
- A la finalización del contrato, entrega de las llaves al Servicio de Cultura.
- Al inicio y finalización del contrato, elaboración y presentación al servicio de Cultura de un inventario exhaustivo del material existente en el taller.

6. UDALAREN BETEBEHARRAK

- Ikasleen matrikulazioa kudeatu.
- Ikastaroetan inskribatzeagatik eginiko kobrantzak kudeatu.
- Jardueren hedapena.
- 7. klausulan adierazitako klaseak emateko ekipamendua eta instalazioak enpresa esleipendunaren eskura geratuko dira, ezarritako egutegien arabera, konponketa-arrazoiengatik edo aparteko beste edozein arrazoirengatik horiek gaitzea ezinezkoa denean izan ezik.
- Udalaren bizkar izango dira eraikineko mantentze-lanen eta egiturazko konponketen (teilatua, fatxada, …) gastuak, baita elektrizitate- eta ur-kontsumoak ere. Era berean, bere gain hartuko ditu labeen prestazioaren eta berme teknikoaren gastuak.

6.ª OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO

- Gestionar la matriculación del alumnado.
- Gestionar los cobros de inscripción a los cursos.
- Difusión de las actividades.
- El equipamiento e instalaciones para la impartición de clases indicado en la Cláusula 7ª quedarán a disposición de la empresa adjudicataria conforme a los calendarios establecidos, exceptuando aquellos en los que, por motivos de reparación o cualquier otra circunstancia extraordinaria, resulte imposible su habilitación.
- El Ayuntamiento correrá con los gastos de mantenimiento y reparación estructural del edificio (tejado, fachada…), así como con los gastos de consumo de electricidad y agua. Asimismo, asumirá los gastos de la prestación y garantía técnica de los hornos.

7. LOKALA ETA MATERIALA

Udalak adjudikaziodunaren eskura jarriko ditu jarduera aurrera eramateko ekipamendu eta instalazio espezifiko egokiak. Gaur egun zerbitzua ematera erreserbatuta dagoen lokala Pikoketa karrikako 9 zenbakian kokatzen da.

135 metro karratu ditu, laneko eremuaren eta bainugelaren artean banatuta dago (II. ERANSKINA). Kaletik bertatik du sarrera.

Irungo Udalak jartzen dituen materialen zerrenda I. Eranskinean jasota dago (Inbentarioa). Jarduera garatzeko beste edozein material espezifiko ez da jarriko (adibidez, buztina, pintzelak, …)

Adjudikaziodunak Udalari proposatu ahal izango dio instalazioetan edozein hobekuntza egitea, eta bere kontura hornitu ahal izango du udalaren hornidura osatu eta hobetzeko beharrezkotzat jotzen duen material edo ekipamendu espezifikoa.

Udalak lokal hori erabili ahal izango du sormen artistikoa sustatzera lotutako jarduerak antolatzeko, zerbitzuaren beraren ohiko ordutegietan eraginik ez badu, betiere.

7.ª LOCAL Y MATERIAL

El Ayuntamiento pondrá a disposición de la adjudicataria el equipamiento e instalaciones específicas adecuadas para el desarrollo de la actividad. El local que actualmente está reservado a la prestación del servicio se ubica en calle Pikoketa, 9.

Se trata de un local de 135 metros cuadrados, distribuidos en zona de trabajo y baño (ANEXO II). El acceso se realiza a pie de calle.

La relación de materiales aportados por el Ayuntamiento de Irun se recoge en el Anexo I (inventario). Queda excluida la aportación de cualquier otro material específico para el desarrollo de la actividad (e.g. arcilla, pinceles…).

La adjudicataria podrá proponer al ayuntamiento la realización de cualquier mejora de las instalaciones y podrá proveer por su cuenta material o equipamiento específico que considere necesario para completar y mejorar la dotación municipal.

El Ayuntamiento podrá disponer de este local para organizar actividades vinculadas con el fomento de la creación artística, siempre que no interfieran en los horarios habituales del propio servicio.

8. ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Enpresa esleipendunak erantzukizun zibileko aseguru poliza bat egin beharko du, gutxienez 150.000 eurokoa, pertsonei edo instalazioei sor dakizkiekeen kalteak estaltzeko.

8.ª SEGURO DE RESPONSABILIDAD CIVIL

La adjudicataria deberá formalizar una póliza de seguro de responsabilidad civil que cubra cualquier daño que se pueda ocasionar a las personas o a las instalaciones por un importe mínimo de 150.000 euros.

9. KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA

Adjudikazioduna, irakaskuntza artistikoa emateaz gain, ikastaroen hedapena egin eta/edo informazio kanpainarako proposamen bat egiteaz arduratuko da.

Udalak gainbegiratuko ditu aipatutako informazio, hedapen eta komunikazioko lanak, batez ere aurre-inskripzioen garaian, eta jarduerari buruzko edukiak ezagutzera emango ditu bere zerbitzuen eta HAZeko zerbitzuen bitartez.

Proiektu guztien komunikazioan Irungo Udalaren irudi korporatiboa agertuko da, toki ikusgarri batean betiere.

Adjudikazioduna konprometitzen da, Irungo Udalarekin batera, egin litezkeen komunikazio eta hedapen jarduera guztiak antolatzera, herritarren artean eta komunikabideetan zerbitzuaren ahalik eta hedapenik handiena lortzearren.

Dagozkion komunikazio jarduerak Udaleko prentsa kabinetetik koordinatuko dira, eta ohiko formatuak izango dira prentsaurrekoak eta prentsa-oharrak egitea nahiz tokiko hedabideetan komunikazioak ateratzea. Adjudikaziodunak inola ere ezingo du inolako komunikaziorik egin Udalarekin aurrez adostu gabe.

Adjudikaziodunak ezin izango du kontratu honen xedearekin zerikusia duten web orriak, profilak edo orriak sare sozialetan abian jarri, udalak berariaz baimendu gabe. Komunikazio plana baloratu egin beharko da, baldintza ekonomiko-administratiboen pleguarekin bat etorriz.

Ikastaro desberdinen hedapenerako kartelak edo dokumentazio grafikoa diseinatzeari dagokionez, enpresa adjudikaziodunak Udalaren arauak jarraitu beharko ditu komunikazioari eta hizkuntza-politikari buruz.

Adierazpen publikoetan, euskararen erabilerari buruzko udal-araudia beteko da.

9.ª LABORES DE COMUNICACIÓN Y DIFUSIÓN

La adjudicataria, además de la prestación de las enseñanzas artísticas, será responsable de realizar una propuesta para la difusión y/o campaña informativa de los cursos.

El Ayuntamiento supervisará dichas tareas de información, difusión y comunicación, especialmente en el período de preinscripciones, y difundirá los contenidos relativos a la actividad a través de sus servicios y los del SAC.

En la comunicación de todos los proyectos se incluirá la imagen corporativa del Ayuntamiento de Irun en un lugar destacado.

La adjudicataria se compromete a organizar, junto con el Ayuntamiento de Irun, cuantas acciones de comunicación y difusión se realicen, para lograr la máxima difusión del servicio entre la ciudadanía y los medios de comunicación.

Las correspondientes acciones comunicativas se coordinarán desde el gabinete de prensa del Ayuntamiento, siendo los formatos al uso las ruedas de prensa y notas de prensa, así como comunicaciones en medios locales. La adjudicataria en ningún caso podrá realizar ningún tipo de comunicación sin la previa conformidad del Ayuntamiento.

La adjudicataria no podrá poner en marcha páginas web o perfiles o páginas en redes sociales relacionadas con el objeto del presente contrato, sin el consentimiento expreso del Ayuntamiento. El plan de comunicación será objeto de valoración de acuerdo con el pliego de condiciones económico administrativas.

En cuanto al diseño de cartelería o documentación gráfica para la difusión de los distintos cursos, la empresa adjudicataria deberá seguir las normas del Ayuntamiento sobre comunicación y política lingüística.

Las comunicaciones públicas se ajustarán a la normativa municipal sobre el uso del euskera.

10. KONTRATUAREN JARRAIPENA

Udalak eta esleipendunak urtean gutxienez bi bilera presentzial egingo dituzte kontratuaren jarraipena egiteko, horrela bermatuz antolaketa-gaietan ahalik eta koordinaziorik onena izatea.

Gainera, kontratua formalizatu ondoren bilera bat egingo da eta bertan hitzartu eta definituko dira bete beharreko lan-egutegiak eta plana.

10.ª SEGUIMIENTO DEL CONTRATO

El Ayuntamiento y la adjudicataria realizarán al menos dos reuniones presenciales al año para el seguimiento del contrato, asegurando así la mejor coordinación posible en cuestiones organizativas.

Además, se realizará una reunión tras la formalización del contrato, y en ella se acordarán y definirán los calendarios y plan de trabajo a seguir.

11. KOMUNIKAZIOA EUSKARAZ

Esleipendunak zerbitzua ematerakoan baldintza hauek beteko ditu:

Zerbitzuaren erabiltzaileek edozein hizkuntz ofizial erabiltzeko eskubidea dute, beraz, hitz egiten duten hizkuntzan artatuak izango dira; ezingo zaie eskatu hizkuntza ofizial batean edo bestean hitz egin dezaten. Komunikazioan kontratu honen menpeko langileak hasten badira euskara erabiliko dute eta erabiltzaileak erabakiko du euskaraz ala gaztelaniaz jarraitu. Publiko elebidun batentzako komunikazioak lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz egingo dira. Zerbitzuaren erabiltzaileak haur edo gazteak direnean (ohiko eta udako ikastaroetan) euskara erabiliko da komunikaziorako.

Ahoz, audioz edo ikus-entzunezkoen bitartez erabiltzaileari ematen zaizkion mezuak eta komunikazioak euskaraz, edo elebietan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez (lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz). Kontratua dela eta egindako aurkezpenak, ekitaldi publikoak, prentsaurrekoak eta antzekoak modu berean egingo dira. Haur eta gazteei zuzendutakoak euskara hutsez egingo dira.

Erabiltzailearentzako idatzizko komunikazioa (oharrak, egutegia, ordutegia…) euskaraz edo bi hizkuntzetan egingo da euskarari lehentasuna emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiago edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz).

Kontratuari lotutako kartelak, panelak, errotulu eta hizkuntz paisaia oro har (kartelak, oharrak…) euskaraz edo elebietan egingo dira, euskarari lehentasuna

11.ª COMUNICACIÓN EN EUSKERA

El adjudicatario debe prestar el servicio cumpliendo las siguientes condiciones:

Las personas usuarias del servicio tienen derecho a usar cualquiera de las dos lenguas oficiales debiendo ser atendidos en el idioma en que se expresen, sin poder solicitarles que se expresen en una u otra lengua. Si la comunicación la inicia personal adscrito al contrato inicialmente usará el euskera y será el usuario/a quien decida comunicarse en euskera o en castellano. Las comunicaciones dirigidas a un público bilingüe se realizarán primero en euskera y después en castellano. En el caso de que las personas usuarias del servicio sean niños/as o jóvenes (curso ordinario y de verano) se utilizará el euskera como idioma de comunicación.

Los mensajes y comunicaciones orales, de audio o audiovisuales destinados al usuario/a se realizarán en euskera, o en bilingüe dando prioridad al euskera (primero en euskera y después en castellano). Las presentaciones, actos públicos, ruedas de prensa y similares relacionadas con el contrato se realizarán de la misma manera. Los mensajes destinados a niños/as y jóvenes se realizarán solo en euskera.

La comunicación escrita destinada a los usuarios/as (avisos, calendario, horario…) se deberá realizar en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no negrita).

La cartelería, paneles, rótulos y el paisaje lingüístico en general relacionado con el contrato (carteles, avisos…)

emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiagoa edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz).

Bi hizkuntzetan oso antzekoak diren edo piktogramen bidez transmititu daitezkeen mezu edo izen oro euskaraz bakarrik jarriko da.

Zerbitzua ematen duten enplegatuek testua edo edozein informazio daraman identifikaziorik (txartela, plaka …) edota uniformerik balute, testu hori euskaraz ala elebietan egongo da.

Kontratu hau dela eta sortzen diren publizitate kanpaina, eslogan eta izendapen berriek (zerbitzuak, guneak…) euskaraz edo elebietan (euskara lehenetsiz) beharko dute. Euskarazko marka, lelo eta esloganak hizkuntz horretan bertan sortuko dira, gaztelaniaren itzulpen hutsa ekidinez.

Enpresak udal arduradunekin aritzeko jartzen dituen solaskideek horretarako ahoz zein idatzizko euskarazko maila nahikoa izan beharko dute.

Kontratuari lotuta, udalari entregatu behar zaizkion dokumentu ez publiko edo barneko guztiak, hala nola fakturak, memoriak, inbentarioa, asistentziak eta jarraipena, edukien programak (ohiko ikastaroa, udakoa, bereziak edota laburrak) euskaraz edo elebietan idatzita egongo dira, euskarari lehentasuna emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiagoa edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz).

Subrogatzeko balizko obligazioen kalterik gabe, ziurtatu beharko da kontratuari atxikitako langileek euskararen ezagutza-maila nahikoa dutela zerbitzu egokia eman ahal izateko. Ordezkapenak egin edo langile berriak kontratatu behar direnean alderdi hori kontuan izan beharko da. Kontratua kudeatzeko enpresak langileei formazioa emango balie, euskaraz edo elebietan beharko du.

Herritarren hizkuntza-eskubideak eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa bermatzeko, beharrezko euskara maila hau da: kontratazio honi dagokion langile guztien kasuan Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila. Maila hori agiri ofizial bidez egiaztatuko da.

se realizará en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no negrita).

Todo mensaje o denominación que sea muy similar en las dos lenguas o se pueda transmitir por pictogramas se colocará solo en euskera.

Si el personal que presta el servicio llevará cualquier identificación (tarjeta, placa…) y/o uniformes que incluyan texto o cualquier información, esta estará en euskera o en bilingüe.

Las campañas publicitarias, eslóganes y nuevas denominaciones (servicios, centros, espacios…) generadas por este contrato deberán realizarse en euskera o en bilingüe (priorizando el euskera). Las marcas, lemas y eslóganes en euskera se crearán en esa misma lengua, sin que sean una mera traducción de la versión en castellano.

Los interlocutores de la empresa con los responsables municipales del contrato deben tener conocimiento de euskera suficiente para llevar a cabo esta interlocución, tanto a nivel oral como escrito, en esta lengua.

Todos los documentos no públicos o internos relativos al contrato, como facturas, memorias, inventario, asistencias y seguimiento, programas de contenido (curso ordinario, de verano, de especialización y/o duración reducida…) que deban entregarse al Ayuntamiento se deberán realizar en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no negrita).

Sin perjuicio de las posibles obligaciones de subrogación, deberá asegurarse que el personal adscrito al contrato tiene el conocimiento del euskera adecuado para atender correctamente al servicio. En el caso de sustituciones o contratación de nuevo personal se tendrá en cuenta este aspecto. La formación que la empresa imparta a los trabajadores para la gestión del contrato será en euskera o bilingüe.

Para garantizar los derechos lingüísticos de los ciudadanos y el cumplimiento de la regulación de oficialidad lingüística del euskera y el castellano, el nivel de euskera requerido es el C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas, en el caso de todo el personal adscrito a esta contratación. Dicho

Hizkuntz Baldintza klausula honek klausula administratibo berezien pleguko (KABP) KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK atalean hizkuntza ofizialtasun bikoitzari buruz xedatutakoa osatzen du. Esleipendunak beti ere Irungo Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauei buruzko udal Ordenantza bete beharko du, eta baita euskararen erabilera Normalizatzeko Plana ere. Kontratuaren arduradunari dagokio hizkuntz baldintza hauek kontrola eta jarraipena.

nivel de euskera se deberá acreditar con el título oficial correspondiente.

Esta cláusula de condiciones lingüísticas complementa lo establecido respecto a la doble oficialidad lingüística en la relativa a los DERECHOS Y OBLIGACIONES DEL CONTRATISTA del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares (PCAP). El adjudicatario deberá cumplir la Ordenanza municipal sobre normas para la normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento y municipio de Irun, así como el Plan de Normalización del uso del euskera. Corresponde al responsable del contrato el control y seguimiento de estas condiciones lingüísticas.

12. GENERO IKUSPEGIA

Eskainitako ikastaroen eta jardueren metodologian genero ikuspegia zeharka tratatuko dela bermatuko du adjudikaziodunak.

Adjudikaziodunak, bere sormen-proposamenak egin eta aurkezterakoan, eta kontratua indarrean dagoen bitartean, kontuan hartu beharko du genero berdintasuna sustatzeko legez ezarritakoa, hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez-sexista egingo du eta estereotipo sexistarik gabeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten materialak eta jarduerak sortuko ditu.

Genero ikuspegia sartzearena baloratu egin beharko da, baldintza ekonomiko-administratiboen pleguarekin bat etorriz.

12.ª PERSPECTIVA DE GÉNERO

La adjudicataria garantizará en la prestación del servicio el tratamiento de forma transversal de la perspectiva de género en la metodología de los cursos y actividades ofertados.

La adjudicataria, en la elaboración y presentación de sus propuestas creativas, así como a lo largo de la vigencia del contrato, deberá tener en cuenta lo establecido legalmente para la promoción de la igualdad de género, hará un uso no sexista del lenguaje y de la imagen y creará materiales y actividades libres de estereotipos sexistas y que promuevan la igualdad entre mujeres y hombres.

La incorporación de la perspectiva de género será objeto de valoración de acuerdo con el pliego de condiciones económico administrativas.

13. INGURUMEN BALDINTZAK

Nahitaez bete behar da indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ezarritako edozein motatako hondakinen kudeaketa eta tratamendu egokia.

Ingurumen ikuspegitik, gutxienez honako ezaugarri hauek izango ditu ekipamenduak:

Bilgarriak material birziklagarriz (papera, kartoia, polietilenoa, polipropilenoa, poliestirenoa) egina izan behar du. Bilgarriak material bat baino gehiago izan ditzake, betiere haiek eskuz eta erraz bereizi badaitezke material bakarreko zatietan.

Hornidurari eta instalazioari dagokienez, enpresa adjudikazioduna arduratuko da instalazio garaian sortutako hondakinak behar bezala biltzeaz eta kudeatzeaz, eta ekipamenduak hornitzean eta jartzean sortutako bilgarriei azken kudeaketa egokia emateko konpromisoa hartuko du, hondakin horien gaikako bilketa bermatuz gutxienez.

13.ªCONDICIONES AMBIENTALES

Es de obligado cumplimiento la adecuada gestión y tratamiento de cualquier clase de residuos así establecidos por el ordenamiento jurídico vigente.

Las características del equipamiento, desde el punto de vista ambiental, serán como mínimo las siguientes:

El embalaje debe estar fabricado con materiales reciclables (papel, cartón, polietileno, polipropileno, poliestireno). El embalaje puede consistir en más de un material si puede ser separado manualmente y de modo fácil en partes de un único material.

En lo relativo al suministro e instalación, el adjudicatario será responsable de la recogida y gestión adecuada de los residuos generados durante la instalación, comprometiéndose a una adecuada gestión final de los embalajes producidos en el suministro y colocación de los equipos, teniéndose que garantizar como mínimo la recogida selectiva de los mismos.

I Eranskina *INSTALAZIO ETA BALIABIDE MATERIALEN ZERRENDA*
Anexo I **RELACIÓN DE INSTALACIONES Y MEDIOS MATERIALES**

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA:**	KULTURA, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA KIROL ARLOA / ÁREA DE CULTURA, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE:**	2025ZAUN0031

DESKRIBAPENA **DESCRIPCIÓN**	***KOPURUA*** **CANTIDAD**	***HASIERAKO HORNITZAILEA*** **PROVEEDOR INICIAL**		***MANTENIMENDUAREN ARDURADUNA*** **RESPONSABLE DEL MANTENIMIENTO**		***MANTENTZEKO EDOTA ORDEZKATZEKO KOSTUAK*** **COSTES DE MANTENIMIENTO Y/O REPOSICIÓN**		***KONTRATU AMAIERAN UDALARI JABETZA-ITZULERA*** **REVERSIÓN AL AYTO. AL FINAL DEL CONTRATO**	
		UDALA **AYTO.**	***ESLEIPENDUNA*** **ADJUDICATARIO**	***UDALA*** **AYTO.**	***ESLEIPENDUNA*** **ADJUDICATARIO**	***UDALA*** **AYTO.**	***ESLEIPENDUNA*** **ADJUDICATARIO**	***BAI* / SI**	***EZ* / NO**
MAHAI TOLESGARRIAK / MESAS PLEGABLES	7	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
TORNU-MAHAIAK / MESAS TORNO	6	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
MAHAIAK (EZ TOLESGARRIAK) / MESAS (NO PLEGABLES)	2	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
IJEZTEKO MAKINARAKO MAHAIA / MESA PARA LAMINADORA	1	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
MAHAI HEXAGONALA / MESA HEXAGONAL	1	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
IJEZTEKO MAKINA / LAMINADORA	1	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
TORNUAK / TORNOS	7	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
AULKIAK / SILLAS	28	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
AULKIAK (1. EREDUA) / TABURETES (MODELO 1)	5	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐

2025ZAUN0031

AULKIAK (2. EREDUA) / TABURETES (MODELO 2)	8	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
AULKI BAXUAK / SILLAS BAJAS	1	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
APALAK / ESTANTERÍAS	30	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
IDAZMAHAIA / ESCRITORIO	1	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
ARMAIRUA / ARMARIO	1	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
ARMAIRUA / TAQUILLA	3	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
PEANAS	4	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
PROPANO-LABEA / HORNO PROPANO	2	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
AURREALDEKO KARGAKO LABE ELEKTRIKOA / HORNO ELÉCTRICO DE CARGA FRONTAL (EREDUA MODELO SBM 300S)	1	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
SBM 300S LABERAKO PLAKAK (ETA HANKAK) / PLACAS PARA HORNO SBM 300S (con patas)	35	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
BEIRATZE-KABINA / CABINA ESMALTADO	1	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
KONPRESOREA / COMPRESOR	1	☒	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐